**ERREPORTAJEA** OPORRAK HERRITIK KANPO · **GEHIGARRIA** JULIAN AZKUERI ELKARRIZKETA
**KULTURA** DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIAREN 50. URTEURRENA ONGARRIREKIN

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko irailaren 13a/X. urtea/416. zkia




OPORRETATIK BUELTAN

## *Eta zu non ibili zara?*




UDAI

DEBABE UDAL EUSICALTEGIEN MAMLOMUNI7ATEA
Nalarron EnparanIxa. Tot.: 943 T4 27 31 • ELGOIBAR
Toolmuka Tenienleon c.tudea. 5. MUTRINU
Ilar,Ilea, 12. OEBA

# 2002 - 2003

## Euskara ikastaroak

**ESKAINTZA**
**EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZEA eta EGA, HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK**

**IRAUPENA**
**Iraila-ekaina.**

**ERRITMOAK**
**Bi ordu egunean.**
**Ordu eta erdi egunean.**

**IKASTARO BEREZIAK**
**Gurasoak, erakunde finantzarioak, enpresak, EGA ikastaroa larunbatetan, mintzapraktika ikastaroak.**

**ORDENAGAILU GELA**
**HEZINET, ordenagailu bidezko programa osagarri.**

UI Gipuzkoako Foru Aldundtharen laguntzaz

**MATRIKULALDIA**
**Irailaren 2tik - 27ra.**
**16 urtetik gorakoentzat / Beka Sistema. Galde ezazu!!!**

**BULEGO ORDUTEGIA**
**ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30**
**MUTRIKU: 09:30-12:30 / 15:30-19:30**
**DEBA: 10:00-12:30 /16:00-19:30**

UDAL
EL15.1500171C,I.AK

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**
Nafarroa Enparantza, 2- Tel.: 943 74 27 31 - ELGOIBAR
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
Txurruka Tenienteen etorbidea, 5 - MUTRIKU eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net
Ifar-kalea, 12 - DEBA euskaftegi@deba.net

www.udaleuskaltegiak.net

# HIZKUNTZ

***Ingelesa, Alemana, Frantsesa, Holandesa, Portugesa, Italiera e.a.***

# SOLUZIOAK

**IRAILETIK HASITA**
**2002-2003 KURTSOKO**
**IKASTAROAK**

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
- Talde murriztuak
- Ikastaroak atzerrjan
- Multimedia gela

**ENPRESA**
**ITZULPEN ETA**
**INTERPRETAZIO ZERBITZUAK**

- Esperientzia zabala duen lan taldea
  - Teknikoa (makina-errerninta)
  - Komertziala
  - Nazioarteko proiektuak
- Goi-teknologiaren erabilera
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
- Prezio lehiakorrak

Matrijkulla apea zabaiij_<]

**INDUSTRY LANGUAGE SERVICES**

**Azkue auzoa, 1—P.K.37 (IMH)**
**E—malla: ils@ils.es**
**Tel.: 943 74 40 40 Faxa: 943 74 15 54**
**Web orria:www.11s.es**



## A zetako iraila!

Asteak zazpi egun baditu ere, honek bakarra izan duela dirudi: irailaren 11. New Yorkeko sarraskia behin eta berriro gogorarazi digute alde guztietatik. Lekukoen testigantza zirraragarriek hunkitu egin gaituzte, eta yankiek munduan zehar jnstiziaren izenean akabatzen dituzten haurren negarrak ahaztarazi dizkigute. Inork gutxik gogoratu du Txilen ere irailaren 11 odoltsua bizi izan zutela I 973an, Estatu Batuetatik bultzatutako Pinochet-en estatu kolpearekin. Aurten, herritar amerikarrek euren hildakoak omendu eta gogoratu dituzten bitartean, Pentagonoko bulego hotzetan Irak erasotzeko prestakuntza lanetan aritu dira. Hildako gehiago, komunikabideetan agertuko ez direnak, jende arrunta, kalekoa, duela urtebete Dorre Bikietan zegoenaren parekoa.

A zelako iraila erori zaigun gaineral Hilabete gogorra izan ohi da beti, baina aurtengoak marka guztiak hautsi ditu. Hasiera ez da makala izan: Ameriketako Estatu Batuak Irak erasotzekotan dira, Johannesburgoko gailurrak dirua eta aberatsen interesak ingurugiro-aren eta mundu justuago baten gainetik daudela erakutsi du, Ekialde Hurbilean ez dago meniarik... Eta Euskal Herriaz, zer esan? Egoera aldatzerik nahi ez dutenek ideiak legez kanporatu nahi dituzte, herri honetako biztanleen artean liskarra piztu... Ilargira bizitzera joateko moduko panorama daukagula, alegia.

Montse Arregi

Cr) rn O D O N C



## Autodeterminazioaren iruzurra

Duela zenbait hilabete Txikito Barrigasek zera bota zuen: autodeterminazioa ez dela eskubide bat, baizik eta eskaera politiko bat. Eta ez zaio arrazoirik falta, azken finean hau inperiaIismoak asmaturiko gauza baita. Lehendabizi, herri baten eskubideak bortxaz kentzen dituzte, gero kolonizazio basati bat ematen da, herri horrek bere nortasuna galdu dezan, eta ondoren autodeterminatu zaitezke. Beraz, benetako autodeterminazio eskubidea gauzatzeko, lehendabizi deskolonizazio prozesu bat eman beharko litzateke eta ondoren erabaki zer nahi den izan. Hala ere, espainiar inperioak eta Frantziako sasi-errepublikak zein eskubide dituzte Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeko orduan?. Zein dira beraiek guri baimena eman edo kentzeko? Eta baiezkoa irtenez gero onartuko luketelakoan; ja, legez kanpo utziko lukete dudarik gabe.

Kontna guztiz bestelakoa da ordea, hau Euskal Herria (Nabarra) da ta bertako biztanleek eskubide guztiak dituzte euskal herritarrak izateko. argeliarra, suekoa, espainarra edo-ta nigeriarra izaten jarraitu nahi duenak, ala jarraitu dezala; hori bai, adibidez, erresidentzia txartel bat eduki beharko luke, epeka luzatuko zena. Hau da, urteak pasa eta euskal kultura zein bertako bizierak errespetatu eta bereganatu beharko lituzke (erakUnde ezberdinek horretarako laguntzak emanez), bere nortasuna zein den ahaztu gabe. Beraz, apurtu ditzagun kateak behingoz. Gora Euskal Herria askatuta, Biba Nabarra libre.

Nestor Fuente

Kexak ............................................ 5
MOtZ MOtZ ............................................ 8
gehigarria ............................................ 13
kiROlAk ............................................ 20
aGencla ............................................

2002-1X-13

# Urruzunoren
## begi ezkutua

## Galderak



Maiz, euria ari duenean, buruan dantzan dabilzkidan galderak egiten dizkiot logelako leihoari. Egunean zehar sentitutakoak makina bat galdera sortarazten dizkigu barrenean eta normalean ezentzunarena egiten dugu. Baina galderak hor daude, ezkutuan, harik eta une lasai eta egoki bat aurkitu eta geure buruan dantzan agertzen diren arte.

Leihoak ez dit deusik argitzen, erantzun nahasi eta ezegonkorrak bidalrzen dizkit, tantek kristalean osatzen duten mapetan galdurik. Sentimendu xumeenak ere erantzun batean laburbiltzeko bezain xinpleak ez direla esan nahiko balit bezala. Baina euriaren hots etengabe, samur, urruna entzuteak lasaitu egiten nau bederen.

**Iñigo Otaño**

### ELEFANTEA ETA ZIRKOA, PNV ETA EUSKAL HERRIA

Nork ez du ba ikusi elefante handi bat zirkoan, bere hanka kate motz batekin estaka txiki bati lotua? Eta nork ez dio ba bere buruari galdetu zergatik ez duen ihes egiten? Zer da ba estakatxo bat elefante batentzat! Elefanteak txiki-txikia zela, kate horri zenbat tira egin zion inork ez daki, eta ez zuen ihes egiterik lortu. Handia zela, ordea, ez zuen arazorik izango, baina honek aspaldi ahaztu zuen askatasun haizea.

PNV-EAk 600.000 botu tortu zituztenean independentzia oihukatzen zuten. Ja, ja, ja! Ilegalizazioaren aurka ere bozkatu zuten. Ja, ja, ja! Euskaldunon iritziari muzin egin eta Españolari kasu egiten diote hauek. Espainiako zirkoaren elefante koldarra zarete, Garzon-Aznar domatzaileen menpe eta zuekin zirko honetatik irteterik ez dago. Gora elefante txiki eta bihurriak, domatzaileentzat gaiztoak. Euskal Herria 7 haizetara zabaldurik gure zain daukagu. Kontuz ibili domatzaileekin, latigo ederrak dituzte-eta. Ez zaitez elefante txotxoloa bihurtu.

Iker Froilan

### MILA ESKER DENOI!!

Elgoibarko Xiberuaren Aldeko Taldea osatzen dugunok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu elgoibartar guztiei. Eta bereziki, herriko tabernari eta dendariak eskertu nahi ditugu, benetan jarrera paregahea erakutsi baiEute. Orain arte 10.000 euro batu ditugu (1.660.000 pta.) Xiberuara bidaltzeko, eta, aurrerantzean ere, hainbat jarduera antolatuko ditugu Euskal Herriko lurralde honi laguntzeko.

Beraz, mila esker orain arte lagundu diguzuen guztioi; seguru gaude aurrerantzean ere aldamenean izango zaituztegula.

**Elgoibarko Xiberuaren Aldeko Taldea**

tzenIRTZIAetaESIUMZAK otofeta

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELOOIBAR
v 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topaguneanom
Helbide informatikoa:
www.topagunea.cornTharren
ARGITARAT7-AILEA
Elgoibarko Izarra

LACILINTZAILEA Elgolearke Udala KOORGINATZAILEA Ainhaa Andonegii ZLIZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irat: Agirreazaldegi. PUBLIZRATEA Amal Elina MmersrbanJaione Unanue ADMINISTRAZIOR Amala Rodrigez GERENTZIA JOR Peli Uriguen KOLABORATLAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansualegi, Edurne Bilbao, Golzon Arrieta, Lorea Perez da Albeniz, Jolen Maninez, Montse Arregl, Juanito Gorosliza, Ainhoa Andonegi, Kelcoe K.E. eta Urruzuno LI.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik 3NVRlxarrGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.925 ale LEGE GORDAILLIA 55-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaarlaritzako Kaitura Sailak eta Forti Aldandiak diruz lagundatako aldizkaria.*

## 11111111

• **Fundizio aurreko semaforoa astelehen goizetan izorratuta egoten dela** esan digu emakume batek. "Lanera joateko errepidea gurutzatu behar izaten dut, eta astelehen goizetan semaforoa beti izorratuta egoten da. Ordu horretan kotxe asko ibiltzen da, eta inor ez da gelditzen. Oso arriskutsua izaten da bidea pasatzea, beraz, asteburuetan semaforoa deskonektatzen badute, astelehenerako prest egon dadila eskatuko nuke",



• Gazte batek **Madala inguruan kutxazain automatiko bat jarri beharko litzatekeela** esan digu. "Jaigiroan diru gehien gastatzen den zonaldea da, eta sarritan diru bila Plazaraino joan behar izaten dugu. Gainera, askotan itxita egoten da kutxazaina eta ezin izaten dugu dirurik atera".

• Gizon batek **Urasandi auzoan asfaltoa zeharo gastatuta dagoela** adierazi digu. "Oso arriskutsua dago lurra, eta ezin da lasai ibili. Kotxez joaterakoan ere askotan labaindu egiten da, eta oso erraza da beste baten kontra jotzea. Toki batzutan lurra pikatu egin zuten lehen, eta hori irtenbide ona izan daiteke".

V



## rj,3 WIDEI111

• Gazte batek, honako galdera luzatu digu Barrenera: **"Herriko Antzokiko soinu sistema aldatu egin al dute?"** Star Wars pelikula ikustean harrituta gelditu zela adierazi digu, efektu berezien soinua oso ondo entzuten zen-eta.

Udalera jo dugu, eta baiezkoa erantzun digute. Dolby Surround sistema zegoen lehen, eta **orain Dolby Stereo Digital sistema jarri dute.** Pantailaren atzean soinu bajuak entzuteko bozgorailu bat jarri dute, eta antzokiko albo bakoitzean efektu bereziak desberdintzeko bozgorailuak. Lehen bozgorailu guztiek soinu bera eskaintzen zuten, orain, ordea, espazio-untzi bat ezkerretik eskuinera joaten bada, soinua ere hon•ela entzungo da.



# Opor Lsa rrdn, irdilean

***Gutxi dira oporretan etxean gelditzen direnak. Herritik irten eta kku berriak ezagutzeko aprobetxatzen dute elgoibartar gehienek opor garala. Batzuek urrutira joateko gogoa izaten dute, beste batzuk eguzki bila joaten dira hegoaldeko txokoetara, eta badira urrunegi joan gabe, abentura bila ateratzen direnak ere. Elgoibartik kanpo ibili direnen bidaiak ekarri ditugu orrialde hauetara. Denak jasotzea oso zaila denez, bi aukeratu ditugu. Bizikktan Ruta del Cid egin duten hiru lagun, eta Kenian izan diren familia bat ekarri ditugu gure artera beraien esperientziak kontatzera.***

## "RIITA DEL CID" BIZIKLETAZ

Agustin Rubiok, Jose Luis Garaizabalek eta Santi Sastrek "La Ruta del Cid" egin dute bizikletaz. Uztailaren 5ean abiatu ziren Burgos aldera, eta zortzi etapatan Valentziaraino iritsi ziren. 654 km. egin dituzte guztira. "Intemeten topatu genuen informazioa, baina etapa batzuk moztu egin behar izan ditugu, luzeegiak zireneta", esan digu Jose Luis Garaizabalek. Mendizaleak izanik, abentura dute gustuko, eta errepidetik baino, nahiago dute mendi-pistaz ibiltzea. Jose Luis Garaizabalen hitzetan, "bidaia guztia mendiz egiten saiatu gara. Zailagoa da, askotan luzeagoa ere bai, baina guretzat politagoa". Uste zutena baino 100 km gehiago egin dituzte gutxi gorabehera.

Ez da oporrak bizikletan pasatzen dituzten lehenengo aldia. Garaizabalek esan digunez, asko gustatzen zaie honelako bidaiak egitea. "Larunbatero bizikletan ibiltzera joaten gara. Negu txarra egin zuen iaz, eta ez genuen gehiegi entrenatu. Apirila edo maiatza aldera hasten gara normalean bizikleta serio hartzen". Alforjek 14 kilo inguru hartzen dituzte, beraz, beharbeharrezko gauzak bakarrik sartu daitezke. Garaizabalen esanetan, "urtean zehar alforja gabe ibiltzen garenez, gero pisu hori guztia eramatea ez da erraza izaten". Bidaia luzea izan da, baina ez dute ezusteko garrantzitsurik eduki: "Teruelera iritsi arte ez genuen pintxazo bat bera ere eduki, baina hortik aurrera denak batera etorri ziren".



*Jose Luis, Santi eta Agustin Valentziako Alde Zaharreko sarreran.*

**"ihntzinako herri txiki asko pasatu genituen, eta jende oso jatorra topatu dugu"**

Esperientzia oso polita izan dela adierazi digu Garaizabalek. Leku oso politak ikusi dituzte, eta herri guztietan jende oso jatorra aurkitu dutela azaldu digu: "Aintzinako herri txiki ugari pasatu ditugu, eta bertako jendea beti laguntzeko prest zegoen. Askotan harritu egiten ziren gu bizikletan ikusita, eta gure bidean laguntzeko behar genuen informazio guztia ematen ziguten". Datorren urtera begira, oraindik ez daukate ezer zehaztuta, baina Garaizabalek esan digunez, lehen bailehen hasiko dira informazio bila.



**ETAPAK EGIINE1 EGUN**

| | |
|---|---|
| 1. Burgos - Salas de los Infantes | 78 km |
| 2. Salas de los Infantes - Burgo de Osma | 82 km |
| 3. Burgo de Osma - Medinaceli | 98 km |
| 4. Medinaceli - Molina de Aragon | 90 km |
| 5. Molina de Aragon - Orihuela | 53 km |
| 6. Orihuela - Teruel | 77 km |
| 7. Teruel - Mrica | 100 km |
| 8. Jffiica - Valentzia | 76 km |
| **GUZTIRA** | 654 km |

## SAFARIA KENIAN



*Keniako tribu bateko kideek beraiekin dantza egitera gonbidatu zituzten.*

Manuel Dominguezek, Arantza Uriartek eta Aitziber Dominguezek Afrika aldean pasatu dituzte I5 egun. Aspalditik omen zeukaten safaria egiteko gogoa eta Keniara abiatu ziren. Arantza Uriartek esan digunez, "hirurok geneukan safaria egiteko gogoa, gainera, familia giroan ez dugu bidaia askorik egiten. Iaz Italian izan ginen, baina alaba ez zen etorri. Beraz, aurten hirurok batera egoteko aprobetxatu dugu".

Nairobitik hasi, eta Samburu, Aberdares, Lago Naikuru, Nahibasa eta Massai-mara herrialdeak bisitatu dituzte. 8 egun inguru pasatu dituzte bertan, eta asko gustatu zaie. Manuel Dominguezek hango bizimodua zeharo desberdina dela azaldu digu: "Nairobi oso pobrea da, iluna eta oso zikina. Beste herrialdeetan askoz hobeto bizi dira, oso gutxi daukate, baina ez dute gehiago behar. Eguraldia ere, toki batetik bestera zeharo aldatzen da, eta ingurunea ere bai". Honekin batera, gauza harrigarri ugari ikusi dituztela gaineratu du: "anirrialia guztiak solte daude, jendea animaliaz inguratuta bizi da. Tribuek txabolak eraikitzen dituzte, eta zazpi hilabete pasatu ostean, dena bota eta erre egiten dute, berriro eraikitzeko". Hango biztanleek sua nola egiten duten ere ikusi dute: "Lau pertsonaren artean egiten dute dena. Belar apur bat, zulotxodun egur zati bat, putz egin, eta bost minutu baino lehenago sua ateratzen da. Harrigarria da".

**"Anknalien zonan sartzean, ezin da edozer gauza egin. Oso garrantzitsua da hidaia-gidariaren aginduak betetzea"**

Safaria furgoneta baten egin dute, eta esan digutenez, oso garrantzitsua da bidai-aidariaren esanak betetzea. "animalien esparruan sartzean, ezin da edozer gauza egin", esan digu Aitziberrek. Denetarik ikusi dutela adierazi digu: "elefanteak, tximuak, huak, Iehoiak, krokodiloak... animalia mordoa ikusi dugu, baina oso ohituta daude, eta ez dute ezer egiten". Bertako jendea ere oso jatorra dela esan digu: "Nairobin beldurra sartu ziguten, eta kontu handiz ibili ginen; baina bestela, tribuetako jendea oso jatorra da. Ume mordoa dago, eta ez du inork negarrik egiten: Arraroa da, baina badakite negar eginda ere, ez dutela ezer lortuko".

Keniako Safariaren ostean, Maurizio irlan pasa dute astebete inguru. Hondartza ikusgarriak bisitatu dituzte, eta oso gustura egon direla esan digute. Baina oporretako onena, zalantzarik gabe, safaria izan da: "esperientzia oso polita izan da, eta ahal izanez gero, berriro egingo genuke".







# Urasandiko eskailera mekanikoak martxan daude abuztuaren 28tik

## Egunean 15 ordu eta erdiz egongo dira funtzionamenduan

Urasandiko bizilagunei iraileko aldapa ez dakigu, baina etxera igotzeko malda arinagoa suertatu zaie oporretatik bueltan. Izan ere, abuztua atnaitzear zela, 28an, hain zuzen ere, eskailera mekanikoak inauguratu zituzten auzo honetan.

Ascensores Cenia enpresak lau eskailera zati jarri ditu oraingoz, baina aurrerago gehiago jartzeko asmoa omen dago. Eskailera mekanikoak herrian ipintzeko proiektua egin zutenean Urasandira ez ezik San Roke auzora igotzeko ere jartzea pentsatu zuten.

**Diru kostuak**

737.908,99 euroko (122.777.725 pezeta) kostua izan dute eskailerek. Hauek jartzeko aurrez egin beharreko lanak, berriz, 257.417,19 euro (42.830.617 pezeta) ordaindu dituzte. Obra hauetaz Construcciones Bikani enpresa arduratu da. Kostuaren %75 Eusko Jauriaritzak ordaindu du eta gainontzekoa Udalak.



*Kaletik poltsaz kargatuta datozenak modu erosoagoan igo ahal izango dira Urasandi auzoan gora.*

Eskailerek Urasandiko bizilagunei modu erosoagoan mugitzeko aukera emango diete egunean 15 ordu eta erdiz. Izan ere, goizeko 7:30ean martxan jarri eta gaueko 23:00ak arte mugimenduan egongo dira. Eskailera mekanikoak igotzeko baino ezingo dira erabili eta jaitsi, berriz, aldamenean dituzten ohiko harrizko eskaileretatik egin beharko da.

Nahiz eta eguneko zati handi batean martxan egon, kontsumoa aurrezteko hainbat neurri hartu dituzte: abiadura motelean mugitzen dira eskailerak, baina pertsonaren bat bertan igotzen hasten den unean abiadura egokitu edo azkartu egiten da.

Elgoibarrerako berrikuntza izanik, Urasandiko bizilagunak ez ezik herriko beste auzoetatik ere jendea eskailera mekanikoak probatzera inguratu dela jakin dugu.



*ESKERTZA*

*2002ko abuztuaren 5ean, 43 urte zituela Brasilen hil zen*
*IÑAKI ALBERDI URKIAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*20021co abuztuaren 7an, 70 urte zituela hil zen*
*GOIKOEIXEA ZUBIAURRE "METALA"ren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Lurdes Alberdi eta M.Carmen Fundazuri izan dira Merkatu Plazako abuztuko zozketaren irabazleak

Flilabetero egin ohi dute Merkatu Plazako dendariek zozketa bezeroen artean eta Lurdes Alberdik eta M.Carmen Fundazurik 60 euroko sari bana eskuratu dute abuztuan. Biek erosketa txekeak jaso dituzte Merkatu Plazan bertan gastatzeko. Argazkian Lurdes Alberdi agertzen da Merkatu Plazako dendari batekin saria jaso zuen unean. Merkatariek esan digutenez, irailean ere bezeroen fideltasuna saritzeko zozketa izango da. Irabazleak Lekeitiko bainuetxe batean bi lagunentzako asteburuko egonaldia izango du saritzat.





## Aparkaleku berria egin dute Urasandiko Tontodromoan

Tontodromo izenez ezagututako Urasandi auzoko pasealekua aparkaleku bihurtu dute. Elgoibarren autoak lagatzeko dauden arazoak ikusita udalak parkinak sortu ditu. Uztailean hasi zituzten Urasandiko lanak eta amaitzear daude, horretarako eskolako patioa ere egokitu behar dute. Bestalde irailean Pedro Muguruzako eskolako jolaslekuan obrak egiteko asmoa dute, gune hau ere aparkaleku moduan erabili ahal izateko.

## Hazetari eta maketatzaile berrlak Barrenen

Oporren ostean Barren berriturik dator, ez kanpotik, barrutik baizik. Lantaldean aldaketak izan dira eta kazetari eta maketatzaile berriak daude aldizkarian. Ainhoa Andonegi kazetari elgoibartarra uztailean hasi zen lanean eta Barreneko testu eta argazkiez arduratuko da beste bi kazetariekin batera. Jaione Unanue diseinatzaile grafiko azkoitiarra arduratuko da aldizkariari itxura emateaz. Lanean fin arituko dira bi neskok Barren elgoibartarron eskuetara era txukunean iristeko.



## Gerra zibileko obus bat aurkitu dute Deba Ibaian

Deba ibaia dragatzeko lanetan lur mugimenduak egin dituzte, eta beste hainbat gauzaren artean Gerra Zibileko obus bat agertu da. Lehergailua Madalako zubiaren azpiko partean aurkitu zuten abuztuaren 27an goizean. Ertzaintzako artezilariek jaso eta beraien basera eraman zuten. Obusak 40 zentimetroko luzeera eta 30 zentimetroko diametroa zuen eta nahiko egoera kaskarrean zegoen, erdoilduta eta punta falta zuela. Ertzaintzatik esan digutenez, era honetako lehergailuren bat aurkituz gero ondorengo neurriak hartu behar dira: Ez mugitu ezta ukitu ere eta berehala SOS Deiak-era (112) deitu. Honela, adituek bertaratu eta lehergailua nola dagoen ikusita bertan indargabetzeko edo eramateko erabakia hartuko dute. Izan ere, hondatutako itxura eduki arren arriskutsua izan daiteke. Beraz, ez du norberak komisariara eraman edo etxean gorde behar.



*Argazkikoaren anizekoa izan zen Madala inguruan, ibaian, topatutako lehergailua.*

### Irailaren liren urteurrena izan zen asteazkenean

# ZERTAN ALDATU MUNDUA AMEN URTE HONETAN?



## MARIA LUISA ARTETXE

**51 urte, etxekoandrea**

Ez dot aldaketa handiegirik sotnatu. Ez det telebista askorik ikusten, eta nere inguruan behintzat ez dot ezer igarri. Munduak berdin jarraitzen dabala uste dot.

## RAMONA ALVAREZ

**32 urte, etxekoandrea**

Gure inguruan ez du eraginik eduki, baina bertako jendearentzat mundua erabat aldatu da. Beste erasoren baten beldur bizi dira orain. Ekintza hartatik arabiarrak nolakoak diren ikasi dugu, eta EEBBk botere gehiago lortu nahi duela ikusi da.





## JOSE NIEBLA

**28 urte, kale garbitzaile**

Munduak berdin jarraitzen du. Terrorismoaren gaiari dagokionean zerbait aldatu da, baina guri ez digu askorik eragin. Jendearengan eragina izan du, baina nik ez duk aldaketarik sornatu,

## JAVIER BARANDELA

**63 urte, igeltseroa**

Nire ustez lana jaitsi egin da. Ez gehiegi, baina azken urte honetan lan gutxiago izan dugu, eta horrek jendearengan beldurra eragin du. Bestela ez dut aldaketa askorik igarri, baina lan munduan izan du eragina.





## BEGOÑA ASTIGARRAGA

**55 urte, etxekoandrea**

Jendeak beldur gehixo daka. Urte guztian ahiztuta egon naiz kontu honekin, baina batzuk uste dabe antzeko zerbait pasau leikela. Arabiak apur bat ezautu ditxugu honekin. Munduan bakarrik ez gerala bizi konturau gera.

## JUAN MARI IRIONDO

**41 urte, administraria**

Nik pertsonalki ez dut aldaketarik igarri, baina munduari orokorrean badirudi eragin diola. Oporretan hegazkinez bidaiatu dut, eta aeroportuetako ziurtasuna aurreko urteetan baino handiagoa izan da.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOIVIOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABEI
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

94044 0,4511 411~4 4~4 te0W404 16 leteette4eo.
latay c:«66107,pktaye:a ev ef

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# 1.000 ikasle matrikulatu dira aurten DBHra arteko mailetan

ko ikasle kopurua, neurri txikian bada ere, igo egin da

## IKASTOLA

| haur hezkuntza | ikasleak |
|---|---|
| 2 urte | 31 |
| 3 urte | 25 |
| 4 urte | 36 |
| 5 urte | 40 |
| **lehen hezkuntza** | **ikasleak** |
| i. maila | 26 |
| 2. maila | 34 |
| 3. maila | 24 |
| 4. maila | 29 |
| 5. maila | 31 |
| 6. maila | 42 |
| **bigarren hezkuntza** | **ikasleak** |
| DBH 1 | 32 |
| DBH 2 | 43 |
| DBH 3 | 43 |
| DBH 4 | 35 |
| **gultira** | **471** |



*Ikastolan, Herri Eskolan eto* Pilar *ikastetxean icrdanik hasi dute 2002/2003 ikasturtea. Aurfen 1000 ikaslek eman dute izena DBNra arteko losketak herriko ikastetxeetan egiteko. lazko datuekin konparatuz gero, lau ikasle gehiago baino ez dira matrikulatu. Izon ere, 996 ikasle ziren 2001/2002 ikasturtean. Urtecrn urtean licasieen kopuruak* gora egin *du piskanaka.*



## HERRI ESKOLA

| haur hezkuntza | ikasleak |
|---|---|
| 2 urte | 23 |
| 3 urte | 44 |
| 4 urte | 37 |
| 5 urte | 19 |
| **lehen hezkuntza** | **ikasleak** |
| 1. maila | 27 |
| 2. maila | 19 |
| 3. maila | 27 |
| 4. maila | 12 |
| 5. maila | 29 |
| 6. maila | 23 |
| **gurtira** | **260** |

## PILAR

| haur hezkuntza | ikasleak |
|---|---|
| 2 urte | 17 |
| 3 urte | 5 |
| 4 urte | 21 |
| 5 urte | 13 |
| **lehen hezkuntza** | **ikasleak** |
| 1. maila | 20 |
| 2. maila | 18 |
| 3. maila | 19 |
| 4. maila | 19 |
| 5. maila | 23 |
| 6. maila | 19 |
| **higarren hezkunlza** | **ikasleak** |
| DBH 1 | 27 |
| DBH 2 | 28 |
| DBH 3 | 23 |
| DBH 4 | 17 |
| **guztira** | **269** |



# UZTAILA / ABUZTUA

2002-IX-13

## JAIOTAKOAK

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo .bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.



Jurdana Alberdi Regil
Uztailak 11
Mikel eta Ikuska

Ane Lazpiur Nogales
Abuztuak 13
Jose Javier eta Antonia



Ibon Makazaga Nuñez
Uztailak 23
Jesus Maria eta Ascension



Ane Gonzalez Arrizabalaga
Abuztuak 8
Ander eta Ainhoa



Yaiza-Aida Arrizabalaga Batista
Uztailak 31
Ernesto eta Sonia



Maialen Laskurain Hoyos
Abuztuak 22
Joxemi eta Gemma



Goizeder Arnedo Aguilera
Abuztuak 4
Roberto eta Maria del Carmen




Nalua Uranga Badiola
Abuztuak 19
Jose Javier eta Idoia



Maite eta Nerea Manzisidor Laskurain
Uztailak 1
Ignacio eta Ane



Mikel eta Marina Bergara Martin
Abuztuak 1
Alberto eta Maria Angeles



Unax eta Maddi Goñi Lariz
Uztailak 8
Iñaki eta Nerea

## EZKONTZAK

Raul Rodriguez eta Vanesa Garcia
Uztailak 13
Eco. JavierJimenez eta ÌVI' Mercedes Jorrin
Uztailak 25
Martin Dominguez eta Maitane Cid
Uztailak 29
Juan Sanchez eta Miren Sagasta
Uztailak 6
Imanol Ansola eta Elisa Gutierrez
Uztailak 26
Roberto Garcia eta Ma Violeta Robledo
Uztailak 27
Altor Arakistain eta Elena Garcia
Uztailak 27
Ivan Calleja eta Miriam Camara
Uztailak 27

## HILDAKOAK

Maria Angela Oria,
88 urte, uztailak 1
Teresa Aginaga,
83 urte, uztailak 10
Jesus Ibañez,
74 urte, uztailak 20
Juan Hernaez,
76 urte, uztailak 27
**Gillermo** Garate,
63 urte, abuztuak 1
Jose Mari Goikoetxea,
70 urte, abuztuak 7
Maria Zubiaurre,
85 urte, abuztuak 11
Iñaki Alberdi,
43 urte, abuztuak 12
Maria Jesus Imaz,
64 urte, abuztuak 15

ETXEBTRIZIA7

thieta zerbitzpa
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

ko iraila/X.
BARREN ASTEKARIA
GEHIGARRIA ... HILEKO ELKARRIZKETA
urtea/416. zkia

# elkarrizketa



ZAHARRENEK "FOTERO" GISA EZAGUTZEN DUTE ETA ELGOIBARTAR ASKOK BERAK ATERATAKO ARGAZKIA IZANGO DUZUE BOLTSIKOAN, NAN EDO DNIAR1 ITSATSITA. BAI NOSKI, JULIAN AZKUEZ ARI GARA. ARGAZKILARI DINASTIA BATEKO HIRUGARREN BELAUNALDIA ORDEZKATZEN DU JULIANEK. VICTORIANO AZKUE ALONSO (1890-1950) (JULIANEN A1TONA) IZAN ZEN FAMILIAKO, ETA ZIURRENIK ELGOIBARKO, LEHEN ARGAZKILARI PROFESIONALA. JULIAN AZKUE VILLARREK (1923-1972), VICTORIANOREN SEMEAK, EMAN ZION JARRAIPENA FAMILIAKO NEGOZIOARI ETA JULIAN AZKUE INTXAUSTIK 30 URTE DARAMATZA ARGAZKILARI LANETAN.

# Julian Azkue

ARGAZKILARILANAK, NORBERA BIZI DAN LEKUA, OSO ONDO EZAGUTZERA

*AZKUETARREK ONGARRI KULTUR ELICARTEARI IREKI DIZKIOTE 80 URIMAN OSATU DUTEN ARTXIBO ITZELAREN ATEAK. ORDU ASKO ARDLIBOA ARAK.47ZEN EMAN OSTEAN KIROLAREN INGURUKO 141 ARGAZKI AUKERATU ETA 'ICIROIA ELGOIBARREN-DIAS DE GLORLI" LIBURUA ARGITARATU DUIE. ARGITARATZEKO BI ARRAZOI AIPATU DITUZIE ONGARRIKOEK LIBURUAREN HITZAURR_EAN: URTE HAIEK EZAGUI'U DITUZIENEK ARGAZKIETA_N BERRIRO IDEIVTIFIKAIZEA ETA BIHAR-ETZI IRAGANAREN 13ILA ABIATZEN DIRENEK LEHENGO KONTUAK NOLAKOAK IZAN ZIREN IKUSTEKO AUKERA IZATEA. JULIAN AZKUEK AZALDU DIZKIGU LIBURUAREN XEHETASUNAK, BERE HASIERAK NOLAROAK IZAN ZIREN ETA BAITA ARGAZKILARI LANBIDEARI BURUZKO HAINBAT GORABEHERA ERE.*

# Julian Azkue

# "Argazkixak ataratzia

**Zer suposatu du zuretzat "Kirola Elgoibarren" liburuaren argitalpenak?**

Ilusio eta poztasun haundixa. Azkuetarrok hainbeste urtetan egin dogun lana baloratzeko modu bat dala begitantzen jata.

**> Zer dela eta egin** duzue kirolaren inguruko **bilduma?**

Jokua ematen zaban gaixa zalako eta jendiantzat erakargarrixa, kirolak garrantzi haundixa baitaka gizartian. Gainera, herrixan kirol asko ein izan da beti eta mundu mailako kirolari on asko pasau dia Elgoibartik, edo bertan jaixo dia.

## "ARGAZKILARIXAN BEGIXAK ENKUADBIAK ETA FOTUAK BKATZEN DITXU EBONON"



**> Lan handia izan al da argazkiak aukeratzea?**

Ez ditxut nik aukeratu, Ongarrikuek baizik. Nik artxibua zabaldu diuet eta ordu asko pasau ditxue artxibua arakatzen.

**Nolakoa da Azkue familiaren argazki artxiboa?**

Ez ditxugu numerauta, baina **80** urtetan ataratako argazkixen negatibuak daude gordeta. Urtez urte artxibauta daoz eta Isabel (arreba) arduratzen da artxibua gestionatziaz. Ez dogu ezer ere botatzen.

**> Gaur egun sistema digitala ari da nagusitzen. Zure aitona Vietorianok oso bestelako sistemak erabiliko zituen mende hasieran, ezta?**

Bai, lehen artisau lana zan gehixao, tradizionalaua. Aitxitxak kristalezko plakadun eta azetatozko kamerekin eitxen zaban lan. Kolorezko makinak agertu arte nik ere ezautu naban lan eitxeko modu hau. Argazkigintzan egon dian prozesu danetatik pasau naiz. Zuri-beltza lehenengo, koloria gero eta sistema digitala oin.

**> Sistema berriekin autentikotasuna** edo xarma **galdu al du argazkilaritzak?**

Igual bai, baina eboluzionau ein bihar da. Berritxu ala hil, hemen ezin da atzera begira geratu. Oin sistema digi-

# erreza da baina ona ataratzia oso zaila"

tala etorri da, eta gu hasi gera erabiltzen. Photoshop moduko ordenagailuko programei esker aintzinako erretratu zaharrak errestaurau leikez.

**Gaur egun dauden kamerekin edozeinek atera al dezake argazki on bat?**

Ez, argazkixak ataratzia oso erraza da, baina argazki on bat ateratzia beste kontu bat da. Sistema digitalak adibidez, analogikuak ditxuan aukera danak eskaini eta erraztasun asko ematen ditxu Ian eitxeko. Hala ere, berrikuntza eta aurrerapen guztixak ez dia nahikuak argazki on bat aterako dala ziurtatzeko.

**Eta zer da argazki on bat zuretzat?**

Zaila da esplikatzen, baina segiduan antzematen da. Erretratu bat eitxerakuan, adibidez, argazkixa ataratzia erreza da, baina pertsonian izakeria edo sentimentu jakin bat erretratu horren bidez transmititzia ez.

**Zer da zure lanbidetik gehien atsegin duzuna? Eta gutxien?**

Argazkilari lanak, norbera bizi dan lekua, kasu honetan Elgoibar, oso ondo ezagutzera bultzatzen zaitxu, bai elgoibartarrak eta baitxa herriko txokuak ere. Batzuk geratuko dia, baina Elgoibarko baztar gehixenak ezagutzen ditxut. Gutxien, berriz, lanan alde mekanikoa. Argazkixak ateratzia dibertigarria da. Ez jata inporta kanpandorrera igotzia edo zuloren batian sartzia, baina badaude lan mekaniko eta aspergarrixak.

**Lanetik kanpo ere argazkilaria izaten jarraitzen al duzu?**

Bai, beti argazkixak ataratzeko Ieku aproposen bila nabil. Lagunek ere esaten diate ni bakarrik fijatzen naizela gauza batzutan. Argazkilarixon begixa ez da geratzen, danian enkuadriak eta fotuak bilatzen ditxugu.

**Zer izango litzateke Julian Azkue argazkilaria ez balitz?**

72xan maestro industrial edo delineante ikasketak bukatu nitxun Armerixa Eskolan. Etxian argazkilari girua ezautu naban, baina sekula ez naban pentsau honetatik bizitzia. 72xan aitxa hil zanian dudia sortu jatan ikasitxakuan lanian hasi edo aitxitxak eta aitxak hasitxako bidia jarraitxu. Argazkilari izatiak etorkizun ona euki zezakeela ikusitxa hasi nintzan, eta oindiokan hemen jarraitzen dot.



**"JENOERIK GABEKO ARGAZIGEI ZERBAIT FALTA ZAIE"**

**Fotero" ezizenaz zarete ezagunak** herrian. **Nondik dator izen hori?**

Nere aitxitxa eta aitxa okinak zian lanbidez eta "Fotero" ezizena gerra garaixan eitxen zian "fota" izeneko ogitxik dator. Gaur egun zaharrenek bakarrik deitzen digute hola.

**Paisaiak ala erretratuak?**

Erretratuak, jendiakin harreman gehixao izateko aukera eskaintzen baitute. Jenderik gabeko argazkixei zerbaitx falta zaie.

**Zuen familian 3 belaunaldi aritu zarete argazkiak ateratzen. Jarraipenik izango al du tradizioak?**

Hori ez dao nere esku. Etxekuek segitzia nahiko balute ez nieke ezetzik esango, baina ezta segitzeko eskatu ere. Ni ere ez ninduan inork bihartu eta halaxe eingo dot nere ondorenguekin ere.

# atzera bcg..?ra

## pausoz pauso











# besteen ahotan



Mendaroko kobazulo batean ateratako argazkian ikus dezakegun moduan Ion Arrieta (eskumatik lehena) eta Julian Azkue (eskumatik laugarrena) oso gaztetotik dira lagun. Bi hauek hainbat abentura eta gaizkakeri bizi eta egindakoak izango dira. Aurpegietara begiratzea besterik ez dago. Beraz, zein hoberik Juliani buruz berba egiteko. "Eguneroko tratuan batzutan takarra izan arren, sentsibilitate hanclikaa do argazki munduan, ekologia eta naturarekin, eta baita injustiziekin eta pertsonen arteko harremanetan ere"

# INTERESEKO TELEFONOAK

| OSASUNA | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Plan ning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonlmoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| **UDALA** | |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Buiegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |

## Eusko, TR FNAK

DONOSTIA-BILBO
Egunero
⌠)0008fia 06.15... 20..15
quoibar 07.02 08.1/2. 22.02
' mieglinetan ".'.45ean hasi.ko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilb() 06110 7.(10 20.(10
Elgoilyar ()7.23 013.23... 21.23
' ilegunelan 81111elan hasiko dira

## Eusko .111081 tiAK

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07 50 08.50 ..

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 0,5.25 09.25 10.25... 21.25

# Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 13 | Yudego | Yudego |
| 14 | Etxeberria (Santa Ana) | Etxeberria |
| 15 | Etxeberria (5anto Ana) | Etxeberria |
| 16 | Fernandez | Fernandez |
| 17 | Yudego | Yudego |
| 18 | Zabaleta | Zabaleta |
| 19 | Etxeberria {Errosario kalea) | Etxeberria |
| 20 | Ibañez | Ibañez |

FARMAZIAK

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze,
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza,
Tel: 943 75 61 42

**ZABALEFA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
15 **igandea Fotero**




**EGUN OSOAN ZEHAR TXANKAKUAREN FERIA.**
- **TXANKAKUAREN IL FERIA.** Elgoibarko Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteko produktufzerbitzuen erakusketa eta salmenta.

11:00tik 14:00etara eta 16:30tik 19:30era
* **Haurrentzako parkeak.** Ludoteka gaztelu ertain puzgarria eta txirristada.
- **TXU-TXU trena.** Ibilaidiak Elgoibarko kaleetan zehar.
* **Haurrentzako tailerrak.** Gobloflexia, makilajea eta goma-apar.
- **Haurrentzako animazioa.** 2 Clowns bere motor-erremolke musikalarekin eta umeen laguntzarekin era guztietako konponketak, igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea eta arotzeria.

**19:00etan**
- **300 euro-ko saria.** Iraitak 16-21 bitartean elkarteko edozein dendatan eta Foruen Plazako ferian erosten duten pertsonen artean egingo da zozketa. 60 euro-ko 5 sari zozketatuko dira, eta sariak erosketa-txekean izango dira. Zozketa arratsaldeko 7etan izango da, baina saria lortzeko boleto saritua zozketaren momentu berean plazan egon beharko da.

# Donostiako Zinemaldiaren 50. urteurrena dela-eta, zine emanaldi berezia antolatu du Ongarri Zine Klubak

## Iazko zinemaldian saritutako filmak ikusi ahal izango dira

Donostiako Merkatari talde baten ekimenez antolatu zen lehenengo aldiz Zinemaldia. 50 urte pasatu dira dagoeneko, eta hori ospatzeko asmoz, Elgoibarko Txankakua Merkatari Elkartearen eta Udalaren laguntzaz, Donostiako Nazioarteko ZinemaIdiari buruzko aste berezia antolatu du Ongarri Zine Klubak. Irailaren 19tik 26ra, Zinemaldiko alor desberdinetan saritutako filmak ikusi ahal izango ditugu Herriko Antzokian. Aurtengo filmak lortzea ezinezkoa denez, Ongarrik iazko edizioko pelikula adierazgarrienak aukeratu ditu.




| MAILA | FILMEA | SAR1A | ORDUA |
|---|---|---|---|
| 19 | "Taxi para tres", (Txile) | Urrezko kontxa 2001 | 22:15 |
| 20 | "Escape to Paradise", (Suitza) | Aktore onenari zilarrezko kontxa | 22:15 |
| 21<br>22<br>23 | "El hombre que nunca estuvo alli", (AEB) | Zabaitegiko itxiera sesioa | 19:30/22:15<br>19:30/22:15<br>22:15 |
| 24<br>26 | "Elling", (Norvegia) | Errealizadore berrien saria | 22:15<br>22:15 |
| 25 | "Adios tierra firme" (Frantzia) | O. Iossielaniren erretrospektiba | 22:15 |



**0 50. AZIOARTEA ZINEMALDIA**

**Herriko Antzokia**
**irailak 19-26**
**gaueko 10:15etan**

Antolatzailea:
**ONGARRI ZINE-KLUBA**

Laguntzaileak:

TXANKAKUA Txankakua

Elgoibarko Udala

# Austriako Villache herriko jaialdian hartu dute parte Haritz Taldekoek

## Bi emanaldi eskaini zituzten abuztuan eta kalejira egin zuten herriko kaleetan

Haritz Euskal Dantzari Taldeko dantzariek herrian ez ezik kanpoan ere erakutsi dute beraien abilezia. Izan ere, Austrian izan dira aurtengo udan lau egunez, Italia eta Sloveniatik gertu dagoen Villache herrian Elizaren Jaialdia delakoan hartu dute parte. Lehen egunean Letonia eta Belgikako taldeekin batera aritu ziren. Bigarren egunean, berriz, egun osoan jardun beharra izan zuten. Goizean beste 6 talderekin batera ordubeteko saioa eskaini zuten eta arratsaldez kalejira egin ostean, Kongresu Jauregian azken emanaldia eginda itzuli ziren etxera. Bide batez Italia, Frantzia eta Austriako hainbat txoko ezagutzeko ere aprobetxatu dute bidaia.



*Haritz Dantzari Taldeko kideak musikariekin, kalej irasn atera aurreiik.*

### Ikusle asko

Jaialdi honen inguruan jende asko mugitu omen da, bai antolatzen, bai dantzan eta baita ikusten ere. 65.000 biztanleko herria izanik, kanpotik beste 50.000 lagun joan omen dira jaialdiaren aitzakian. Jon Lizarralde Haritz Euskal Dantzari Taldeko zuzendariak esan digunez, "sekulako montajea da. Dantzari eta musikariez gain, arropa tradizionalak gordetzeko lan egiten duen jendea ere biltzen da jaialdian. Gainera, partaideak asko izan bagara, zer esanik ez ikusleak. Jendea ongi portatu da gurekin eta emanaldi bat bukatutzat eman genuenean, berriz dantzatzera ateratzeko eskatu ziguten". Eguraldia ere lagun izan dute dantzari eta musikari elgoibartarrek eta oso esperientzia polita izan dela esan digute.

### Emanaldia Miarritzen

Bestalde, Haritz Euskal Dantzari Taldeak emanaldien ibilbideari jarraituz, Miarritzen izango du bere hurrengo saioa. Izan ere, Juan Antonio Urbeltzek, folklore adituak eta koreografoak Pas de Basque ikuskizuna estreinatuko du irailaren I5ean Miarritzeko Gare de Midi antzokian. Emanaldia arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta Haritzeko dantzariek hartuko dute parte bertan.

# Naia Membrillerak irabazi du Ourenseko Akordeoi Lehiaketa

## Infantilen mailan aritu zen bakarka eta "Piccolo Prigionero" pieza eskaini zuen



*Naia Membrillera Ourenseko San Clodio monastegian.*

Ikasturtea hasi berria da etxeko txikientzat eta joan den kurtsoan Musika Eskolan egindako lanak eman zion fruiturik Naia Membrillera elgoibartarrari. Izan ere, ikasturte amaieran, Orenseko San Clodio monastegian 45. Akordeoi Jaialdi Nazionala izan zen eta lehen saria eskuratu zuen bere mailan.

Bakarka aritu zen Naia infantilen kategorian eta L. Ravasioren "Piccolo Prigionero" pieza jo zuen epaimahaikoen aurrean. Ondo aritu zen itxuraz lehen tokian sailkatzeko. Naiak diploma eta diru saria jaso zuen. Ez da neskatila honek soinua jotzen sariren bat eskuratu duen lehen aldia. Zorionak, beraz, Naia Membrillerari.

## Berrikuntzak Olaizaga Kirokleglan

Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du Olaizaga Kiroldegiko igerilekuetako obrak abuztuaren erdi aldera bukatu zirela eta dagoeneko ohizko ordutegian funtzionatzen jarraitzen dutela. Bestalde, sauna berriak ere martxan daude ohizko ordutegian. Ikas taroei dagokienez, Haurrentzako Psikomotrizitate ikastaroan izena emateko epea irekita dago eta aerobikeko talde berriak sortzear daude astelehen eta asteazkenetan, goizeko 8:00etan eta arratsaldeko 15:00etan.

## Markel Bergara Espainiako futbol selekzioak deitu du

Markel Bergara elgoibartarrak 17 urtez azpiko Espainiako futbol selekzioaren deia jaso zuen, eta irailaren 10ean eta I ln Madrilen izan zen selekzioarekin entrenatzen. Markelek Realaren jubenil mailako taldean jokatzen du eta etorkizun handiko jokalaria da. Hau ez da Espainiako selekzioarekin joan den lehen aldia izan, 16 urtez azpiko selekzioarekin ere jokatu baitzuen.

## Mintxetako fgerflekuak irailaren 22an itxiko dituzte

Mintxetako aire libreko igerilekuak irailaren 22an itxiko dituzte. Aurtengo uda eskasa kontutan hartuz denboraldia astebetez luzatzea erabaki dute arduradunek. Ordutegia honakoa izango da: 13:00etatik 19:00etara.

# Jnse Gurrutxaga Espainiako Txapeldun 100 eta 20ei metrotan

### 100 metrotan 18'01" segunduko denbora egin zuen

Jose Gurrutxaga atleta elgoibartarrak beste bi garaipenekin osatu du bere 'curriculum' aparta. 81 urteko atleta bikainak Espainiako Atletismo Txapelketetan hartu zuen parte pasa den uztailean Orensen. Bi urrezko domina eskuratu zituen 80 urtetik gorakoen kategorian. Lehen garaipena 100 metro libretan lortu zuen. 65 urtera arteko atletekin batera korritu zuen eta titulua eskuratzeko 20 segundutik behera jaitsi behar zuen. Federazioak jartzen duen marka minimoa da, adin hauetako partehartzaile gutxi aurkezten direla-eta. Josek 18'01" denbora egin zuen. 200 metrotako lasterketan zangoan zuntz haustura zuela hartu zuen parte, baina eskatzen zitzaizkion 40 segundotatik jaistea lortu zuen. 39'27 segundutan egin zituen 200 metroak. "Zaintiraturik gabe hobeto eingo nabalakuan nao, baina nahiko gustora geratu nintzan eindako karrera eta denboriakin" aipatu digu.



# Ehiza Xeheko txapelketa Urnobitzan jokatuko da zapatuan, hilaren 21ean

La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak urtero antolatzen duen Ehiza Xeheko Txapelketa irailaren 21ean, zapatuan, jokatuko da Urnobitza mendian. Goizeko 9:00etan hasiko dira ehiztariak eta txakurrak lanean eta 13:00etan banatuko dira sariak. Izen ematea egunean bertan egin ahal izango da 7:30etik 8:00etara. Bestela 607 49 86 22 telefonora deitu. Iaz Ibai Iriondo gazte debarrak irabazi zuen txapelketa, "Ira" txakurraren laguntzarekin 7 faisai bota ostean. David Konde elgoibartarrak ere 7 faisai bota zituen, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Guztira 60 faisai askatu ziren iaz eta 36 ehizatu zituzten partehartzaileek.



*laz 60 faisai askatu zituzten eta 36 bota zituzten ehiztariek.*

# Frantziako pirineotara mendi irteera antolatu du Morkaikok irailaren 20tik 22ra

## Ibilaidi gogorrak eta leunak izango dira aukeran

Morkaiko Mendizale Elkarteak Point d'Espagnera (Frantziako pirineoak) Mendi irteera antolatu du. Irteera irailaren 20an, barixakuan, izango da arratsaldeko 19:00etan Pista Beltzean. ItzuIera, berriz, hilaren 22an, domeka arratsaldean. Chalet du Clot aterpetxean egingo dute egonaldia izena ematen dutenek (ostiral gabean lo egitea, larunbateko gosari, afari eta lo egitea, eta igandeko gosaria). Aterpetxean plaza mugatuak daudenez, ahal bezain laster izena ematea komeni da. Bertan, hainbat ibilaldi egiteko aukera izango da: Marcadauko bailara, Gaubeko lakua, Oulettesko aterpetxea, Lutourko bailara, LIheouko lakua, Ossueko glaziarra. Ibilaldi gogortxoagoak: Petit Vignemale, Gran facha, Cambales, Vignemale. Prezioa 60 eurotakoa da bazkideentzat. Bazkide ez direnentzat 70 eurotakoa.

# Mintxeta Atletismo Taldearen entrenamenduak irailaren 18an hasiko dira

Ikasturte berriarekin batera Mintxeta Atletismo Taldeko kideei iritsi zaie entrenatzen hasteko garaia. Irailaren 16an, astelehenean, hasiko direla entrenamenduak zabaltzeko eskatu digute arduradunek. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira entrenamenduak Mintxetako pistetan19:00etatik aurrera.

**BANATZAILEAK**
BEHAR DIRA

**BaRRen**

**ELGOIBARREN BANATZEKO**

Eskatzen da:
- 16 urte beteta izatea
- Euskaraz jakitea

interesatuok deitu IRAILAREN16a baino lehen
943 74 16 26 telefonora edo pasa
**ELGOIBARKO IZARRAk** Ubitarten duen lokaletik.

**LODOSO**
**AROZTEGI METALIKOA**



ARCO EUROPA GOLD STAR AWARD KALITATEA

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2 - 2. pabilioia 3 zenb.
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

JOSE (Txema)
**- Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
**Zoluak, rnoketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu..**
San Barblome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

BUKATU S.COOP

**otwitoulw ys.** eij»p,

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGO1BAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

# agenca

2002-IX-13

## 14 ZAPATUA

16:00 "GORA **EUSKAL HERRIA" MANIFESTALDIRA JOATEKO AUTOBUSAK**
Irteera Plaza Huanditik

## 16 ASTELEHENA

19:00 **SABIN OSOROREN ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
"Etiopia hegoaldetik iparralderuntz"
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Irailaren 28ra arte



## 19 EGUENA

19:00 **HITZALDIA**
Gaia: Alzheimer gaixotasuna
Hizlaria: Javier Ruiz, neurologoa
Kultur Etxean

## MATRIKULAZIOAK

**Euskara ikastaroak AEK euskaltegian**

AEK euskaltegiak zabalik dauka datorren ikasturterako matrikula epea. Eskaintza zabala da: euskara ez dakitenentzat, jakinda ere erraztasunez berba egiteko hobetu nahi dutenentzat, irakaskuntza zein administrazio perfflak lortzeko eta EGA ateratzeko aukera izango da. Eskolak goizez, arratsaldez eta gauez izango dira, astean 2, 3, 4 edo 5 egunetan. Langabetu, ikasle eta gurasoek matrikula erdia ordainduko dute, eta beka lortzeko aukera izango dute. Interesatuek AEK euskaltegira jo dezakete, edo 943-74 13 32 telefonora deitu, irailaren 25a baino lehen.

**Helduentzako heziketa**

Helduentzako Heziketa Eskolak matrikulazio epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Alfabetizazioa, atzerritarrentzako ikastaroak, bigarren mailako graduatua eta kultura orokorra eskainiko dira. Interesatuok E.P.Ak Pedro Muguruzan duen egoitzara jo dezakezue edo 943-74 08 80 telefonora deitu arratsaldeko 15:30etatik 18:30era.

## JARDUNALMAK

**"Alzheimer gaur" hitzaldi-eztabaida**

Datorren irailaren 19an Javier Ruiz Mendaroko neurologoak Alzheimer gaixotasunari buruzko hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.



## "Taxi para tres"

Zuzendaria: Orlando Lubbert.
Antzezleak: **Alejandro** Tejo, Fernando **Gomez-RovirY Daniel M**uhoz.
Ulises Morales hil ala biziko erabaki baten aurrearu ago. Bi atrakatzaile bere taxian igo dira eta proposamen sineztezina egin diote, 411ffakatrdleekin batu ala beraien bahitu bihurtu. Zintzurraren kontra daukan labanak ez dio behar bezala pentsatzen lagatzen, eta zertan sartzen den jakin gabe, gaizkileekin bat egitea erabakiko du. Gutxinaka bere erahakia onena izan dela konturatuko da. Gaizkile izatea gogoko du, batez ere lortzen diren irabazi azkan˜ak direla-eta.

Lagunkide topaketa '

Datorren irailaren 21ean Alzheimer gaixoen lagunkide topaketa izango da. Eguerdiko 12:30etan Udaletxean harrera egingo zaie, eta 14:00etan Anaikidetza bazkaria izango da, gaixo, senide eta lagunentzat SIGMA jatetxean. Bazkarian parte hartzeko, irailaren 16a baino Iehen AFAGI-ren kontuan pertsona bakoitzeko 18 euro ordaindu behar dira. Euskadiko Kutxa: 30350060410600081081

## IHASTAROAK

Gurasoentzako euskarazko klaseak

Hizkuntza bat transmititzeko gurasoek duten garrantziaz oharturik, Elgoibarko Udalak herriko euskaltegiekin batera gurasoentzako ikastaro bereziak antolatu ditu. EuskaIduntzeko, euskara lantzeko eta sakontzeko ikastaroak izango dira. Irailaren 20ra arte eman daiteke izena Udal Euskaltegian (943-74 27 31) eta AEK euskaltegian (943-74 13 32). 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoek matrikularen erdia ordainduko dute, eta gainera, beka lortzeko aukera ere izango dute.

Dantza

Triska Dantza Elkarteak antolaturik dantza ikastaroak izango dira Olaizaga kiroldegian. Dantza klasikoa eta sevillana-runba flamenkoa eskainiko dira, eta 2tik 5 urte bitarteko haurrentzako psikomotrizitatea. Irailaren 16an hasiko dira ikastaroak, eta izena emateko epea irailaren 14an bukatuko da.

Masajea

Surya belardendak oinarrizko masaje ikastaroa antolatu du. Bertan masaje teknika desberdinak erakutsiko dituzte. Datorren irailaren 28an hasita, 9 larunbatetako iraupena izango du ikastaroak. Eskolak goizeko 10etatik euguerdiko 12:30era izango dira. Belardendan bertan eman dezakezue izena edo honako bi telefonoetako batera deitu: 943-74 25 34/626 79 50 24

Errestaurazioa

Eskuz Elkarteak errestaurazio ikastaroa antolatu du. Urrian letik aurrera, astearte eta ostegunetan eskainiko dira eskolak, 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Interesatuek 943-74 14 49 telefonora deitu (14:00tatik 16:00etara).

Alzheimer

ICTE enpresak INEM-ekin batera "Alzheimer Gaixoen Atentzio Berezitua" ikastaroa egiteko asmotan dabil INEM-en apuntatuta dauden langabetuentzat. Ikastaroa dohainik izango da, Osasun eta sozial alorreko zentruetan praktikak egingo dira, titulazio ofiziala eskainiko da, eta partaideen izenak lan poltsa bat osatzeko erabiliko dira. Ikastaroa 259 ordukoa izango da, irailaren 16tik abenduaren 4ra. Eskolak Arrsaten emango dira. Informazio eta izen emateak Deba Garaiko INEM-en goizeko 9etatik 13:OOra (943-79 71 45) edo ICTE enpresan goizeko 9etatik arratsaldeko 18:00ra (943-77 16 99/943- 77 17 15).

## zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

13. barixakua: 22:15
14, zapatua: 19:30-22:15
15, domekia: 16:30-19:30-22:15
16, astelehena: 22:15

EIBAR, Uniaga
' 1
13, barixakua: 19:30-22:15
14. zapatua: 1701-19:30-22:30
15, domekia: 17:00-19:30-˚2:30
16. astelehena:19:30-22:15
17, martitzena: 19:30-2¹:15
18. eguaztena: 19:30-22:15

JITIVZ Wifilk;

**"Road to perdition"**
13, barixakua: 19:30-2⁹:15
14, zapatua:19:30-22:15
15, domekia:19:30-22:15
16, astelehena: 19:30-22:15
17, martitzena: 19:30-22:15

BERGAR oyedades

13, barixakua: 22:30
14, zapatua: 19:30-22:15
15, domekia: 19:30
16. astelehena: 19:30
17. martitzena: 19:30
**"Stuart Littte 2"**
14. zapatua: 17:00
15. domekia: 17:00
16. astelehena: 17:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Spiderman"

Zuzendaria: Sam Raimi.
Antzezleak: Tobey Maguire, Willen Dafoe, Kirsten Dunst.
Oso gazterik umezurtz geratu ostean, Peter Parker New Yorkeko Queens auzoan bizi da May eta Ben izeba osabekin. Peterrek ikasle bizitza arrunta egiten du, baina erakustaldi zientifiko batera egingo duen txangoak bizirnodua goitik behera aldaraziko dio. Erakustaldian genetikoki manipulatua izan clen armiarmak ziztatuko du. Handik gutxira ezhoiko botereak dituela ohartuko da Peter. Armiarma baten indarra eta arintasuna ditu eta armiarmaren ariari esker batetik bestera mugitu liteke hegan.

# erretratu zaharra

2002-IX-13



Aste honetako erretratu zaharra **Lucia Zabalak** laga digu. 1947. Urte inguruko argazkia da, eta Karnabaletan ospatutako Kaldereroen dantzaldia ikusten da bertan. Elgoibarko herriak betidanik izan du musikarako zaletasuna. Argazkian ikusten den bezala, herriko banda eta koroa azaltzen dira. Tren geltokitik Santa Ana kalera dihoan aldapan aterata dago argazkia. Eskuin aldean ikusten den etxebizitza Don Antonio Arrillaga sendagilearen klinika da. Garai hartan oso klinika ospetsua zen, eta jende asko etortzen zen kanpotik. Argazkiaren erdi-erdian, **Jose Perez Cortes Coronado** bandako zuzendaria ikus dezakegu bere betiko gabardinarekin. Argazkian azaltzen diren guztien izenak jakitea oso zaila da, baina seguru jende ezagun asko aurkituko duzuela bertan.



*ESKERTZA*

*2002ko irailaren 5ean, 70 urte zituela hil* zen

*VICTOR ZABALA ARRIOLAren sendiak,*

*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*- Goian bego -*



**MARIA JESUS IMAZ**

*2002ko abuztuaren 14an hil zen 64 urte zituela.*

*Benetako euskaldun*
*jatorren kidea*
*beti erabili duzu*
*nekezko bidea*
*zuk ondo bete duzu*
*euskaldunen legea*

**EAKO ALDERDIKIDEAK**



mucho mejor si te enseña el mejor



**EUSKARA IKASTAROAK**

- **Maila guztiak**
- **Perfilak, EGA, HBLEM**

ikasle, guraso
eta langabetuek
**MATRIKULA**
**ERDIA**
(udalaren laguntzaz)

**IzEna emateko EpEa IrailarEn 25a artE**

Elgoibarko aekeuskaltegia
Plaza Txikia, 3 - Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknetnet

aek



# ZEZEN-B1DE

## AUTO ESKOLA

**San Frantaisko, 43 -1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

**1 0:00etatik-1 2:30era**
**1 5:00etatik-20:30era**



**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR

# OLAIZAGA KIROLDEGIA

ELGOIBARKOZ
Fe.«ESP
PAT Ft 0 NAiruA

Berrito,(11



IgErilEkua

Uva izplak





IgErilEku txikia

Ozata, lectita, ,,
,6adaza eitoibt&fAm u.
Koit of&rgia

**Ordutegia**

Astegunak: 7:30-13:30 / 15:00-21:30

Larunbatak: 9:00-13:00 / 16:00-19:30

Jaiegunak: 10:00-14:00

**Tel.: 943 74 44 15**

BaporEzko sauna





Finlandiar sauna





